

EU



ARABAKO MUSEOAK



ARTZINIEGAKO MUSEO ETNOGRAFIKOA

Arteko Aldapa, 12
01474 Artziniega - Araba
+ info:
Tel: 945 396 210
www.artziniegamuseoa.org



OIONGO ETNOGRAFIA MUSEOA

Foru, 6 (sarrera Foru plazatik)
01320 Oion - Araba
+ info:
Tel.: 945 622 190



EUSKAL BUZTINGINTZA MUSEOA

Ollerias Auzoa
Elosu (Legutiano) - Araba
+ info:
Tel: 945 455 145
www.euskalzeramika.com



USATXI ETNOGRAFIA MUSEOA - PIPAON

Espainia Plaza
01118 Pipaon - Araba
+ info:
Tel.: 945 403 266



LAZARRAGA KULTUR GUNEA - ZALDUONDO

Lazarraga-Amézaga Jauregia
Iturribarri Auzoa, 9
01208 Zaldondo - Araba
+ info:
Tel.: 945 304 393



SANTXOTENA MUSEO-TAILERRA

Barrataguren Auzoa
01474 Artziniega - Araba
+ info:
Tel.: 945 396 664



FAROLEN MUSEOA

Zapatari, 33
01001 Vitoria-Gasteiz, Araba
+ info:
Teléfono: 945 277 077



LAGUARDIA LAGUNEN ELKARTEAREN MUSEOA - LAGUM

Nagusi kalea, 66
01300 Guardia - Araba
+ info / erreserbak: 945 600 845
www.lagum.org

Arabako Foru Aldundiak museo eskaintza zabala du, era askotakoa, eta bisitaria gonbidatzen du denboran zehar bidaia berezi bat egitera zientzien, historiaren eta artearen bitartez, aurkitzera bai duela milioika urteko bizitzaren aztarnak bai gaurko kultura garaikidearen joera berrienak. Orobat eskaintzen du hezkuntza programa zabal bat eta ikusle guztientzako jarduera sorta zabal bat.



www.araba.eus
educacionmuseosyarqueologia@araba.eus



ARABAKO NATURA ZIENTZIEN MUSEOA
Jesusen Zerbitzarien Fundatzailean kalea, 24

BIBAT ARKEOLOGIA - FOURNIER KARTA MUSEOA
Aitzotgile kalea, 54.

ARTIUM
Frantzia kalea, 24

ELIZBARRUTIKO ARTE SAKRATUAREN MUSEOA
Katedral Berria
(Andre Maria Sortzez Garbia)
Cadena y Eleta kalea z/g

ARABAKO ARTE EDERREN MUSEOA
Frai Francisco
Vitoria Ibilbidea, 8

ARABAKO ARMA MUSEOA
Frai Francisco
Vitoria Ibilbidea, 3

VITORIA-GASTEIZ



arabako
arte ederren museoa

Frai Francisco Vitoria Ibilbidea, 8
01007 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 181 918
museobellasartes@araba.eus

5



arabako
arma museoa

Frai Francisco Vitoria Ibilbidea, 3
01007 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 181 925
museoarmeria@araba.eus

7



elizbarrutiko arte
sakratuaren museoa

Katedral Berria
(Andre Maria Sortzez Garbia)
Cadena y Eleta kalea z/g
01008 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 150 631 | 945 041 021
info@museoartesaacro.org

9



arabako
natura zientzien
museoa

Jesusen Zerbitzarien
Fundatzailean kalea, 24
01001 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 181 924
mcna@araba.eus

11



artium
arte garaikideko
euskal zentro-museoa

Frantzia kalea, 24
01002 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 209 020
www.artium.org

13



bibat arkeologia -
fournier karta
museoa

Aiztogile kalea, 54
01001 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 203 707
bibat@araba.eus

15



Augustin-Zulueta jauregian dago, 1912an bizileku partikular gisa eraikitako eraikinean, eta 1942an sortu zenetik, hainbat bider eraldatu da harik eta gaur egun XVIII. eta XIX. mendeetako espainiar arteari buruzko museo bat bihurtu arte; bereziki, 1850-1950 epeko euskal artea biltzen du. Estatuko artisten artean, izen hauek nabarmentzen dira: Vicente López, Federico de Madrazo edo Carlos de Haes, eta, aldiz, euskal artearen bilduma kopuruz hadiangoan, Francisco Iturrino, Darío de Regoyos, Aurelio Arteta, Elías Salaverria, Ignacio Zuloaga, Valentín eta Ramón de Zubiaurre edo Juan de Echevarría. Arreta berezia jarri zaie bertako pintore ospetsuenei, hala nola Ignacio Díaz Olano eta Fernando de América gasteiztarrei; hain zuzen, azken horrek, fundazio baten bitartez, bere produkzioaren zatirik handiena dauka utzita museo honetan erakusteko.

arabako arte ederren museoa

Frai Francisco Vitoria Ibilbidea, 8
01007 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 181 918
museobellasartes@araba.eus

Ordutegia:

Asteartetik larunbatera:
10:00 - 14:00 / 16:00 - 18:30

Igande eta jaiegunetan:
11:00 - 14:00

Astelehenetan itxita,
jaiegunetan izan ezik
Astelehena jaieguna izan bada,
asteartean itxita

SARRERA DOAN



Arma Museoak armen historia eta bilakaera erakusten ditu, gizateriaren jatorrietatik XX. mendearen hasiera aldera arte. Batzuk eraso eta defentsa personal edo kolektiborako armak dira; beste batzuek ehiza, jolasa, trebezia edo agerketa dute helburua; guztiek garaiko teknologiarik aurreratuenak islatzen dute eta asko beren arte balioagatik nabarmentzen dira. Bildumaren partetik handiena Europako armak dira, baina badaude Afrikako eta Ekialdeko armak ere, baita uniformeak, kondekorazioak, dominak eta txanponak ere. Aipamen berezia merezi du Gasteizko Gudaldiari (1813) eskainitako atalak, gertakizun horrekin zuzeneko lotura duten material interesgarriekin osatua.

arabako arma museoa

Frai Francisco ibilbidea, 3.
01007 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 181 925
museoarmeria@araba.eus

Ordutegia:

Asteartetik larunbatera:
10:00 - 14:00 / 16:00 - 18:30
lgande eta jaiegunetan:
11:00 - 14:00
Astelehenetan itxita,
jaiegunetan izan ezik
Astelehena jaieguna izan bada,
asteartean itxita

SARRERA DOAN







Gure iraganarekin eta bere forma artistikoeekin aurkitzeko lekua da. Sortzez Garbiaren Katedral Berrian kokatuta, 1999an ireki zen eta bere eginkizuna Arabako ondare erlijiosoa babestea, zaintzea, aztertzea eta zabaltea da. Bertako artelanak Arabako Foru Aldunditik, Gasteizko Gotzaindegitik eta elizbarrutiko elizetatik jasoak dira dohaintza, gordailu eta erosketen bidez. Bildumak elizbarutiaren erlijio artea islatzen du eta arte estiloen bilakaeraren nondik norakoa azaltzen duten bost multzo (harria, enborra, taula, mihisea eta zilarra) jartzen ditu ikusgai. Aretoetan zehar ikusgai daude lehen kristauen aztarnak, tenplu erromanikoetako piezak, zurean zizelkatutako irudi gotikoak, triptiko flandiarak, erretaula errenazentistak, Greco, Ribera, Carreño de Miranda eta Alonso Canoren, besteak beste, mihiseak eta zilarrezko bilduma interesgarria.

elizbarrutiko arte sakratuaren museoa

Katedral Berria
(Andre Maria Sortzez Garbia)
Cadena y Eleta kalea z/g
01008 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 150 631 | 945 041 021
info@museoartesanacro.org

Ordutegia:

Asteartetik ostiralera:

10:00 - 14:00 / 16:00 - 18:30

Larunbatak: 10:00 - 14:00

Igandeak eta jaiegunak:

11:00 - 14:00

Astelehenetan itxita

SARRERA DOAN



Beheko solairuan erakusketa iraunkorra dago, Behe Kre-tazeoko anbarren Arabako aztarnategiei buruzkoa. Izan ere, munduan dauden aztarnategi paleontologiko garrantzitsuenetakoa da Kretazikoa.

Lehenengo solairuan, Arabako Mesozoikoko itsasoetako fosil adierazgarrienak daude ikusgai. Horrekin batera, XX. mendeko Espainiako mineralogiari buruzko bilduma bat dago. Bigarren solairuan, gure eskualdeko natura eremuak botanikaren nahiz zoologiaren ikuspuntutik itxuratzen dituzten elementuak daude ikusgai. Aldi baterako erakusketen areto horretan gaur egungo gaietarako buruzko muntaiak eskaintzen dira, eta horiek ANZMaren eskaintzaren osagarri dira.

arabako natura zientzien museoa

Jesusen Zerbitzarien
Fundatzailean kalea, 24
01001 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 181 924
mcna@araba.eus

Ordutegia:

Asteartetik larunbatera:
10:00 - 14:00 / 16:00 - 18:30
lgande eta jaiegunetan:
11:00 - 14:00

Astelehenetan itxita, jaiegunetan izan

ezik

Astelehena jaieguna izan bada,
asteartean itxita







Artium erreferentea da arte garaikidearen museoen artean.

Eta hori Bildumagatik da, ondare publiko berezi eta paregabea osatzen baitu: ezbairik gabe, dagoen euskal arte garaikidearen bilduma nagusia da eta, horrez gain, azken ehun urteetako arte espainiarraren eredu nabarmena.

Halaber, erreferentea da bere asmo handiko erakusketa programagatik, hurbi-letetik hasita nazioartekoraino; kultura garaikidearekin lotutako jarduera agenda oparogatik (zinema, arte eszenikoak, musika, ikastaroak...); bere Dokumentazio Zentro dinamiko eta biziagatik eta hezkuntza eta gizarte eginkizunekin duen konpromisoagatik. Horrekin guztiarekin, Artiumek baliabideak eskaini nahi die herritarrei, arteetik eta kulturatik abiatuta orainaren irudi bat eraikitzeko.

artium

arte garaikideko
euskal
zentro-museoa

Frantzia kalea, 24
01002 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 209 020
www.artium.org

Ordutegia eta tarifak:
www.artium.org



BIBAT kultura ekipamendu bat da, eta Arabako Fournier Karta Museoa eta Arabako Arkeologia Museoa biltzen dituena. Lehena Bendaña jauregi erre-nazentistan dago, eta, bigarrena, horren aldameneko Patxi Mangado arkitektoaren diseinu garaikideko eraikin berrian. Bi museo baten, Arabaren eta bertako hiriburu Gasteizen historiarekin estu lotuak, hain zuzen hiriburuko hirigune historikoan daudenak. Zentro hori, gainera, inguruko gizartea eta kultura dinamizatzeko gunezatzat hartzen da eta, hortaz, hainbat espazio komun ditu, hala nola aldi baterako erakusketetarako aretoa, hitzaldietarako aretoa, liburutegi espezializatua eta lantegietarako guneak. Horien guztien bidez, kultura ondarearen arloko ikerketa zientifikoa eta ezagutzaz bultzatu eta lagundu nahi dira.

bibat arkeologia - fournier karta museoa

Aiztogile kalea, 54.
01001 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 203 707
bibat@araba.eus

Ordutegia:

Asteartetik larunbatera:
10:00 - 14:00 / 16:00 - 18:30
Igande eta jaiegunetan:
11:00 - 14:00
Astelehenetan itxita,
jaiegunetan izan ezik
Astelehena jaieguna izan bada,
asteartean itxita

SARRERA DOAN







Arabako Fournier Karta Museoak karten bilakaeraren gaineko ibilbide historikoa, teknikoa eta gaikakoa eskaintzen du XV. mendetik hasi eta gaur arte. Gainera, historian zehar kartak egiteko erabili izan diren teknikei buruzko atal bat dauka. Museoak hainbat tokitako karta sorten bilduma du, bai Gasteizen egindakoak bai munduko beste leku batzuetan egindakoak. Aipamen berezia eskaini behar zaio Gasteizen Heraclio Fournier-ek sortu eta haren iloba Félix Alfaro Fournier-ek jarraitutako karta enpresaren historia eta garapenari. Bigarren hori izan zen museo honetako bildumaren sustatzailea.

bibat arabako fournier karta museoa

Aiztogile kalea, 54.
01001 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 203 707
museonaipes@araba.eus

Ordutegia:

Asteartetik larunbatera:
10:00 - 14:00 / 16:00 - 18:30

Igande eta jaiegunetan:

11:00 - 14:00

Astelehenetan itxita,
jaiegunetan izan ezik
Astelehena jaieguna izan bada,
asteartean itxita

SARRERA DOAN



Museoko erakusketa iraunkorra hiru solairutan dago egituratuta, eta solairu horietan Arabaren historia kontatzen da, 1.500 arkeologia objektu baino gehiago eta ikus entzunezko hainbat baliabide abiapuntu hartuta, behinolako Historiaurretik Erdi Aroaren amaiera arte. Nolanahi ere, ikusgai dauden piezak bilduma osoaren zati txiki-txikia baino ez dira. Izan ere, Arabako Lurralde Historikoan egiten diren esku hartze arkeologiko guztietatik –batzuk XIX. mendean eginak– ateratako materialaren gordailu ofiziala da Arabako Arkeologia Museoa. Gainera, museo horren instalazioetan egiten dira Arabako arkeologia ondarea kudeatzeko eta babesteko lanak, Arabako Foru Aldundiari dagozkionak, bai eta bertako kultura baliok ikertzeko, zabalteko eta ezagutzera emateko era guztietako jarduerak ere.

bibat arabako arkeologia museoa

Aiztogile kalea, 54.
01001 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 203 707
museoarqueologia@araba.eus

Ordutegia:

Asteartetik larunbatera:
10:00 - 14:00 / 16:00 - 18:30
Igande eta jaiegunetan:
11:00 - 14:00

Astelehenetan itxita,
jaiegunetan izan ezik
Astelehena jaieguna izan bada,
asteartean itxita

SARRERA DOAN





3 KEXAAKO MONUMENTU MULTZOA

ARTZINIEGA

KEXAA

Amurrio

N-624

4 IRTEERA

AP-68

AP-68

N-622

Murgia

Bilbao

Alak

Trespupes

VITORIA
GASTEIZ

N-1

Irún

Trespupes - Billoda
Iruña Veleiako hiri erromatarra

ONDARE
ARKEOLOGIKOA

4

VARONATARREN
DORREA

VILLANAÑE

A-2622

Espejo

A-2622

Gesaltza-Añana

Pobes

A-2622

Langraiz-Oka

Billoda

340 irteera

Burgos - Madrid

ONDARE
ARKEOLOGIKOA

**Guardia
La Hoya,
Burdin Aroko herrixka**

2

Armiñón

Burgos

N-1

A-124

Logroño

Bastida

Samaniego

A-124

ONDARE ARKEOLOGIKOA



iruña veleiako hiri erromatarra

23

Trespuentes - Billoda / Villodas
01191 Iruña-Oka (Araba)
Tel.: 618 539 353



la hoya, burdin aroko herrixka

25

Elvillar errepidea, z/g
01300 Guardia / Laguardia (Araba)
Tel: 945 621 122

MONUMENTU MULTZOAK



kexaako monumentu multzoa

27

01477 Kexaa - Aiala - Araba
Tel.: 945 399 414



varonatarren dorrea

29

01426 Villanañe - Araba
Tel.: 945 353 035
varona@araba.eus



ONDARE ARKEOLOGIKOA

Erromatarrak gure lurretara etorri aurretik ere, Veleia indigenen bizileku garrantzitsua zen; karistiar herriaren egonleku nagusia, iturri klasikoan arabera, eta leku estrategikoan zegoena, hots, Arabako Lautadaren mendealdeko muturrean. Gure lurraldea erromatar munduan integratu ondoren, gero eta garrantzi handiagoa hartzen hasi zen, eta Vasconiaren lurraldeko erdigune garrantzitsuenetakoa bihurtu zen. Halaxe erakusten du haren izena Iruñaren euskal toponimoarekin «hiria» identifikatu izanak, Iruña-*Pompeo* eta Irun-*Oiasso* kasuetan gertatutako prozesuaren antzekoan. Kokaleku estrategiko hori indartu egin zuen bertatik igaro izanak Astorga eta Bordele lotzen zituen galtzada, *iter XXXIV* deritzona, zeina penintsularen iparraldean zirkulaziorik handiena zuten komunikazio bideetako bat baitzen. Nagusitasun egoera horri eutsi zion erromatar inperioren gainbeheran. Garai hartan, hiria harresi sendoen bidez inguratu eta hiri perimetrea txikiagotu zuten, eta inperioko armadaren unitate baten egoitza bihurtu zen, alegia, *Cohors Prima Gallicarena*. Iruña Veleiako aztarnategi arkeologikoa aspaldidanik da ezaguna, baina XX. mendean soilik egin dira indusketak etengabe. Gaur egun, ikerketak aurrera jarraitzen du, eta garai hartako bizimoduei eta kulturari buruzko datu interesgarriak agertzen ari dira.

iruña veleiak^{ko} hiri erromatarra

Trespuentes - Billoda
01191 Iruña Oka - Araba
Tel.: 618 539 353

UDAKO ORDUTEGIA eta ASTE SANTUKO ORDUTEGIA (Ostegun Santutik Pazko Astearen amaiera arte)

Asteartetik larunbatera:

11:00-14:00 / 16:00- 19:00

Igande eta jaiegunetan: 11:00-14:00

NEGUKO ORDUTEGIA (urria-apirila)

Asteartetik larunbatera: 11:00-15:00

Igande eta jaiegunetan: 11:00-14:00

Astelehenetan itxita, jaiegunetan izan ezik
Astelehena jaieguna izan bada, asteartea itxita.



La Hoya garrantzi handiko herrixka izan zen, eta ia mila urtez jendea bizi izan zen bertan, K.a. 1200. urtetik (Erdi - Azken Brontze Aroa) K.a. 250. urtera arte (II. Burdin Aroa). Herrixkak, aldi gorenean zegoenean, eraso bortitza jasan zuen eta, haren ondorioz, sutan erre zen. Hala ere, gertakari latz hark ahalbidetu zuen zenbait arkeologia lekukotasun oso interesgarri onik gordetzea, errautsek eta hondakinek estali egin baitzituzten merkatu egunez eraso zuten herrixkaren hondarrak, eta "izoztu" egin zuten herrixkaren irudia. Halaxe, ukitu ere egin gabe, geratu zen arkeologia aurkikuntza egin zuten arte. Aztarnategian barrera ibiltzeaz gain, aukera dago interpretazio zentroan aztarnategiaren historia ezagutzeko eta indusketetan aurkitutako objektuak ikusteko, bai eta bertako etxebizitzetako baten tamaina errealeko erreprodukzioa ere. Horrek guztiak ahalbidetzen du berregitea eta hobeto ezagutzea nolakoa zen herrixkan bizi zirenen egunerokotasuna.

la hoya, burdin aroko herrixka

Bilarrera errepidea z/g
01300 Guardia - Araba
Tel: 945 621 122

UDAKO ORDUTEGIA eta ASTE SANTUKO ORDUTEGIA (Ostegun Santutik Pazko Astearen amaiera arte)

Asteartetik larunbatera:

11:00-14:00 / 16:00- 19:00

Igande eta jaiegunetan: 11:00-14:00

NEGUKO ORDUTEGIA (urria-apirila)

Asteartetik larunbatera: 11:00-15:00

Igande eta jaiegunetan: 11:00-14:00

Astelehenetan itxita, jaiegunetan izan ezik
Astelehena jaieguna izan bada, asteartea itxita.



ONDARE
ARKEOLOGIKOA

SARRERA DOAN





Kexaan gertatu ziren Arabaren eta Euskal Herriaren historiako pasadizo aipagarrienetako batzuk. Aiaratarrengandik jaso dugun kultur ondarea, Kexaako monumentu multzo bikaina, kultur ondusun kalifikatu bat da. Nobleziaren ondare zibil gisa, zatirik handiena XIV. mendearen bigarren erdian eratua, bera da hobetoen mamitu zen ondaretako bat, eta gaur egunera arte hobetoen zaindu zenetako bat. Aiaratarren leinuaren eta Kexaako oinetxearen arteko batasun estu-estu hori agitu zen jauregia eraiki zenean, 1378. urtean moja domingotarren komentua sortu zenean, Aiaratarren leinuaren mausoleoa ezarri eta Adatseko Ama Birjinaren kapera-dorrea eraiki zenean. Adatseko Ama Birjinaren kaperan biltzen da Kantzilleraren ahalegin artistikoen muina.

kexaako monumentu multzoa

01477 Kexaa
Aiala - Araba

Argibide gehiago:
Tel.: 945 399 414



Dorre honen jatorria XIV. mendean amaiera edo XV.aren hasiera aldean kokatu behar da. Varona deiturak VII. mendean du jatorria. María Ruiz Pérezekin jaiotzen. Orduetik gaur egun arte, dorrea haren zuzeneko ondorengoen bizilekua izan da. Esparru osoa Arabako Foru Aldundiak zaharberritu du. Barruan, beren izaera tradizionala gorde duten hainbat gunek irauten dute. Geletan banaturik, altzari ale ederrak ikus daitezke, dorre-jauregiaren jabeenak. Interesgarriak dira paper pintatuak eta zeramika bilduma. Esparruaren alde batean dorrea nabarmentzen da. Esparrua almenadun barbakana batez eta eta gezi-leihoak dituzten hormez babesturik dago, baita inguratzen duen ur-hobi zabal batez ere.

varona tarren dorrea

01426 Villanañe - Álava
Tel.: 945 353 035
varona@araba.eus

Ordutegia:

Larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan:

11:00 - 14:00

UZTAILA ETA ABUZTUAN:

Asteartetik larunbatera:

11:00 - 14:00 eta 16:00 - 19:00

Igandeetan eta jaiegunetan:

11:00 - 14:00

Astelehenetan ITXITA

**OHARRA: Azken bisita gidatua,
ixteko ordua baino ordu bete baino**

lehenago hasiko da



SARRERA DOAN





ARABAKO
MUSEOAK

araba  **álava**
foru aldundia diputación foral